

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2010eko abenduaren 30a. VIII. urtea. 2.149. zenbakia. www.tolosalde.hitza.info

Geroz eta parte-hartze handiagoa Urtezaharreko krosetan


Urtetik urtera indartzen doan ohitura da; Alegian, Berastegin, Lizartzan, Tolosan eta Villabona-Zizurkilen izango dira **4-5**

Urepel elkarteak zazpi urte betetzen ditu gaur

Berastegiko gazte biltokiaren urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte; 20:00etan hasiko dira jai giroan murgiltzen **6**

Gabonetako IX. Pilota Topaketako finalak, gaur

Partidak Amezketako Larrunarri pilotalekuan izango dira 16:00etatik aurrera **3**



→ **Iritsi zaio debuta.** Jon Jaunarena pilotari gazteak atzo debutatu zuen Barriola herrikidea bikote zuela Tolosako Beotibar pilotalekuan. Leitzarrek Aritz Lasa eta Laskorain izan zituzten aurkari. Beotibar pilotalekuko harmailak lagunez eta oro har, pilotazaleez bete ziren atzokoan Jaunarenaren debuta ikusteko. **6**



txokohitza

HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** pareu du

LAGUN ARO GBC
Meridiano Alicante
saskibaloia partida

Urtarrilak 2 • Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunben

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak



Artista txikiak sortzen

Txotxongiloekin telebista saio bat egiten ikasi dute hainbat gaztetxok, aste honetan Topic zentroan

Iñigo Terradillos Kultura

Beste jai egunetan egin izan duten bezala, Eguberri hauetan ere tailer berezia prestatu dute Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan. Bertan, txotxongiloak egiten ikasi dute, eta ondoren, horiekin telebistarako saio bat osatu dute.

Astelehenean hasi ziren tailerarekin, eta gaur izango dute azken eguna. Sei urtetik gorako 16 neska-mutil izan dira goizero hiru orduz, lau egunetan zehar. Ikastaroan zehar ikasi dutena azken saioan erakutsi beharko dute, prestatutako ikuskizuna guztietan aurrean antzeztuz.

Hasi, baina, txotxongiloak egiten hasi ziren. Eskuzko oinarriko txotxongilo bana egin dute.

Galtzerdiekin eraiki dituzte, begiak, ahoa eta ilea jarriz bakoitzak nahi duen erara. Behin pertsonaia osatuta, telebistarako albiste saioa edota erreportajea prestatzekari ekin diote. Gidoia pentsatu eta landu beharra izan dute horretarako.

Telebistako saioak eredu

Gustuko dituzten telebista saioak hartu dituzte eredu, hala nola, *Barrio Sesamo* edota *Los Lunnis*. Bada, txotxongiloa prestatuta, eta gidoia eginda, antzeztzen ere ikasi behar izan dute. Agian, puntu hori izan da askorentzat gogorrena, jendaurrean lotsak galtzea ez baitaie erraza egiten askori. Hori gaudituta, baina, euren kabuz, hasieratik bukaeraino, telebista saio polit bat egiteko gai direla ikusi dute.

Aisia era desberdin batean igarotzeko modua eman die gaztetxo hauei txotxongilo tailerrak. Jolas egin, ikasi, irudimena landu, jendaurrean antzezteko lotsa galdu, ederki igaro edota lagun berriak eginez, gainera.



Lehen irudian txotxongilorik gabe antzeztzen ikasi dutela ikusi daiteke. Txotxongiloak eskuan dituzte, gero. I.T.

Musika Bandarekin kalejira, bihar

20:00etan abiatuko dira musikariak Gorriti plazatik; Plaza Berrian joko dituzte azken piezak

Erredakzioa Musika

Urteari bukaera ederra emateko, Tolosako Musika Bandak Urte Zaharreko kalejira egingo du Tolosako Alde Zaharreko kaleetan, urteko azken egunean, hau da, bihar.

Musika taldea Gorriti plazatik aterako da 20:00etan. Korreo kalea gurutzatu eta Solana kalera



Kalejira Plaza Berrian bukatuko dute, bertan bi pieza joz. K. DENDALLIZE

iritsiko dira, eta bertatik Plaza Zaharrera helduko dira. Plaza Zaharrean giro polita sortuko dute, hainbat doinu jo eta gero, eta handik, Plaza Berrirantz abiatuko

dira, Kale Nagusitik. Horrela emango diote amaiera kalejirari. Plaza Berrian *Zezenen Jota* eta Tolosa Futbol Klubaren ereserkia *Ia Zarrak* joko dituzte.

→ Laburrak

Angel Cuerdoren erakusketa Aranburun

GIZARTEA › Angel Cuerdok azken hamar urteetan egin dituen bidaletan aterako argazkiak daude ikusgai Aranburu jauregian. *Mundu bat kolore* izenburupean leku askotako 81 argazki bildu ditu. Argazkiak ikusteaz gain, erosi ere egin daitezke, izan ere, sahararrei laguntzea ere bada ekimenaren helburuetako bat. 50 euroren truke eros daitezke argazki bakoitza. Bildutako dirua Mendebaldeko Saharako zonalde librean ikastetxe bat eraikitzeko baliatuko da.

Asis sarearen otoitzaldia gaur Klarisen komentuan

ERLIJIOA › Asis sarearen hilero-ko otoitzaldi bilkura egingo dute gaur, 19:30ean Klarisen komentuan. Bertatik azaltzen dutenez, 2.000 lagun inguru biltzen dituen dagoeneko Asis sareak. «Bere bilatze-bide pertsonalaren edo eguneroko fedearen bizipenen laguntza gisa espiritualtasun frantziskotarraren balioaren intuizioa dutenekin bide zabala eta plurala jorratu nahi du». Informazio gehiago nahi duenak 646 21 48 96 telefono zenbakira dei dezake, asis-sarea@arantzazu.org helbide elektronikora mezu bat bidali dezake, edo bestela, www.asis-sarea.org web orrian sar daiteke.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA


■ **Etxebizitza.** Berrobin etxebizitza alokatzen da. 3. solairua eta erreformatua. Interesatuak deitu 656 41 02 80 zenbakira.

SALGAI

■ **Motorra.** Suzuki RMZ 450-a salgai. 2006. urtekoa eta egoe-oso onean. Harremanetarako deitu: 635 75 09 15.

■ **Eskopeta.** Bereta markako eskopeta railatua salgai. Oilagorretarako aproposa, bi kanoi jokurekin. 2007koa da eta oso gutxi erabilia dago. Interesatuak deitu: 635 75 09 15.

■ **Etxebizitza.** Leitzan 100 m²-ko pisua salgai. Norberak bere gustura jartzeko moduan. Interesatuak deitu telefono honetara: 687 40 52 33.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Zuzenketa. Atzoko *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza* egunkariko seigarren orrialdean argitaratutako Poxpolo ta Konpainiaren inguruko albistean akats bat dago. Izan ere, «Poxpoloren heriotza eta gero bide berri bati ekin diote eskualdekoek» zioen berriak, baina horren lekuan ondorengo adierazpena beharko luke: «Mokoloren heriotza eta gero bide berri bati ekin diote eskualdekoek». Barkatu akatsak sortu ahal izan ditzakeen eragozpenak.

Gabonetako IX. Pilota Topaketako finalak jokatu dituzte gaur

Bost mailatan banatuta, Amezketako Larrunarri pilotalekuan izango dira partidak 16:00etatik aurrera

Erredakzioa Amezketako

Alegia, Altzo, Amezketako eta Ikaztegiako neska-mutilek, Gabonetako oporretan pilota partidak jokatzen ari dira. IX. Gabonetako Pilota Topaketak izan dituzte eta astelehen eta asteartean sailkapen partidak jokatu ostean, gaur finalak jokatu dituzte.

Sailkapen partidak Altzo, Alegia eta Ikaztegiako pilotalekuean jokatu ostean, finalak, Amezketako Larrunarri pilotalekuan izango dira. Partidak, 16:00etan hasiko dira. Bost mailatan banatu dituzte pilotariak. Benjamin aurrekoel dagokionez (2003-2004 urteetan jaiotakoak) Amets Uz-

kudun eta Jokin Olano bikotea eta Arkaitz Amundarain eta Jon Mikel Artolak osatutakoa iritsi dira finalera.

Benjaminetan (2001-2002 urteetan jaiotakoak) Iker Zubeldia eta Goar Otermin bikotea eta Aitor Galarza eta Aimar Urkirik osatutako sailkatu dira finalerako.

Alebinetan (1999 eta 2000 urteetan jaiotakoak) Xabier Perurena eta Julen Oiarbide, Joanes Olano eta Oier Zubeldia bikotearen aurka ariko dira.

Infantil mailan (1997 eta 1998 urteetan jaiotakoak) Aratz Irizustabarrena eta Asier Alustizak osatutako bikotea eta Uxer Mozo eta Beñat Belokik osatutakoa pasa dira azken partidara.

Zaharren mailan, hau da, kadeteetan (1995 eta 1996 urteetan jaiotakoak) Eñaut Larrea eta Jon Irizarrek osatutako bikotea eta Aritz Garmendia eta Julen Otamendik osatutakoa iritsi dira finalera.



Astelehenan Alegiako pilotalekuan jokatu ziren bi partida ezberdin. I. GARCIA



↓ Gabonetako IX. Pilota Topaketa

FINALAK

■ **Benjamin-aurrekoak.** Amets Uzkudun eta Jokin Olano bikotea, Arkaitz Amundarain eta Jon Mikel Artolaren aurka.

■ **Benjaminak.** Iker Zubeldia eta Goar Oterminek osatutako bikotea, Aitor Galarza eta Aimar Urkiriren kontra.

■ **Alebinak.** Xabier Perurena eta Julen Oiarbide, Joanes Olano eta Oier Zubeldia bikotearen aurka.

■ **Infantilak.** Aratz Irizustabarrena eta Asier Alustiza bikotea, Uxer Mozo eta Beñat Belokiren aurka.

■ **Kadeteak.** Eñaut Larrea eta Jon Irizar, Aritz Garmendia eta Julen Otamendik osatutako bikotearen aurka.

GAUR, HILAK 30

■ **Non.** Amezketako Larrunarri pilotalekuan.

■ **Noiz.** 16:00etatik aurrera.

Gabon egunetan ere euskal presoak gogoan

Eskualdeko herrietan modu ezberdinean aldarrikatuko dituzte euskal presoek eskubideak

Erredakzioa Politika

Urteko azken egunean, herritar asko eta askok, euskal presoak gogoan izango dituzte. Bihar, elkarretaratzeak edota manifestazioak egingo dituzte.

Aiztondo bailarako herritarrek, Villabonako Errebotek pla-



Alegian egindako manifestazioaren ostean plazan. P. RENOBALES

zan hasi eta Zizurkilgo Joxe Arregi plazan bukatuko den manifestazioan parte hartuko dute.

Alegian ere manifestazioa

egin dute. Amezketan berriaz, elkarretaratzea egingo dute 19:30ean eta bertan era ezberdinean aldarrikatu dute presoek Eus-

↓ Azken ostirala

BIHAR

■ **Alegia.** 19:30ean manifestazioa plazatik abiatuta.

■ **Amezketako.** 19:30ean elkarretaratze girotua.

■ **Anoeta.** 19:30ean.

■ **Ibarra.** 19:30ean.

■ **Ikaztegieta.** 12:30ean.

■ **Lizartza.** 20:00etan.

■ **Orendain.** 20:00etan.

■ **Tolosa.** 19:30ean.

■ **Villabona-Zizurkil.**

19:00etan manifestazioa.

■ **Leaburu-Txarama.** 20:15ean Leaburuko plazan.

■ **Leitza.** 20:00etan Lopeneko biribilgunean.

kal Herriratzea; txalapartariak, bertsolariak eta dantzariak izango dituztelarik lagun. Herritarrei parte hartzeko deia egin dute.

Era berean, urtarilaren 8an Bilbon izango den manifestaziora joateko autobusak antolatu dituzte eskualdeko herri askotan.

Eguberri
hauetan
oparitu
HITZAko
harpidetza!



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin harpidetza:

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

Gure Tolosako bulegoan ere baduzu aukera:

Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa

Irudia » **Leitza**

JAUNARENAK GOGOR EGIN DIO IBILBIDE BERRIARI

Atzo egin zuen debuta Jon Jaunarena 18 urteko gazteak Beotibar pilotalekuan. Izugarritz giroa zegoen orain gutxi 75 urte bete dituen frontolan. Herritar ugari bertaratu ziren pilotariari hasi berri duen ibilbidean animatzeko.

ko. Umetan ameslari gaztetan pilotari, oain in lekue txapelai. Aupa Jonirakurri zitekeen kontrakantxan. Nor-gehiagoka gogorra eta borrokatua izan zen atzokoa. Herrikide bat, Abel Barriola, izan zuen bikote, eta Aritz Lasak.

Laskorain bikotea aurkari. Hirugarren Leitzako profesionala berriz, Oinatz Bengoetxea, harmailetan zegoen. Pilotazaleak gustura utzi zituzten atzo, eta Jaunarenak erakutsi zuen pilotan egiteko gogoz datorrela. **E. EZEIZA**

Gaur truke azoka, talo tailerra eta gehiago

Atekabeltz herriguneak antolatuta herriko plazan hainbat ekitaldi izango dira egun guztian zehar

Erredakzioa Leitza

Atekabeltz herriguneak antolatuta hainbat ekintza ari dira burutzen egun hauetan Leitzan. Hasteko, herenegun iluntzean, Aurrera elkartean hizpide izan zuten lurrinen iragarkietan se-

xualitatearen inguruan egiten den eraikuntza.

Ez gaitzela kontsumitu! kontsumo aske, burujabe eta kritiko baten alde lelopean, gaur egun guztian truke azoka egingo dute herriko plazan. Hala, garai batean egiten zen bezala, bakoitzak ahal duen eskainiko du, eta besteak trukean beste horrenbeste emango dio. Honela erakutsiz, dirurik erabili gabe, gauzak lortu daitezkeela.

Bestetik, arratsaldean, 18:00etan, talo tailerra izango da. Hau ere, plazan izango da, udale-

txe azpiko karrapea, hain zuzen ere. Honekin batera, jatekoak eta edatekoak ez dira faltako.

Datorren astelehenean, II. Futbito Maratoia

Hilaren 3an, bigarren aldiz, Futbito Maratoia jokatu dute. Aurkekoa 2006an antolatu zuten, eta orain berririo egingo dute. Parte hartu nahi dutenek urtarillaren 1a baino lehen eman beharko dute izena. Torrea eta Peritza tabernetan nahiz Atekabeltz gazte-txean bertan dute horretarako aukera interesatuek. Txapelketa-



Tolosan duela gutxi izan zen azoka.

rako zehaztutako oinarrien arabera, taldeak bost eta zortzi lagun artekoak izan beharko dute eta mistoak, hau da, neska eta mutil ez osatuak.

Izena emateko, talde bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu. Parte hartzaileentzat, jatekoa eta edatekoaz gain, sariak ere izango dira.

10:00etan emango diote hasiera maratoiari eta egun guztian zehar luzatuko da jaia, partida guztiak jarraian jokatu direlarik. Norgehiagoka laburrak eta azkarak izango dira.

Urepel biltokiaren zazpigarren urteurrena ospatuko dute gaur

20:00etan hasita, luntxa, kontzertua eta zozketa izango dira; urte berriarekin batzorde aldaketa ere egingo dute

Erredakzioa Berastegi

Gaur zazpi urte ireki zituen estreinakoz Berastegiko Urepel gazte biltokiak. Hori dela eta bere urteurrena ospatuko dute gaur arratsaldetik aurrera. Elkarteko ordezkariak herritar guztiak gonbidatzen dituzte festan parte hartzera.

Urteroko ohiturari jarraituz, luntxa izango dute 20:00etatik aurrera.

ondoren, musika izango da, Ingo al deu? talde andoaindarrak kontzertua eskainiko baitu. Erromeria doinuak eskaintzen dituzte hauek, eta jendea dantzan jartzea da beraien asmoa. Bestetik, jaialdian saski bat ere zozketatuko dute.

Urte berriarekin batzorde aldaketa

Hilaren 17an egin zuten Urepel elkarteko kideek batzar orokorra. Bertan bozketa bidez erabaki zuten zeintzuk izango diren hurrengo urteko batzorde kideak eta baita lehendakaria ere.

Sei lagunek osatzen dute batzordea, eta hauek urtebetean izaten dira kide. Amaitzean den

urte honetan, Mirian Lasarte izan da lehendakaria eta berarekin batera beste bost lagun aritu dira lanean. Urtarrilaren 1ean, Lasarteri Urko Atxukarrok hartuko dio erreleboa, eta berarekin batera beste hainbat gaztek.

100 bazkide inguru ditu Urepel elkartek, eta bertan kultura batzordea eta kiroletakoa aurkitzen dira. Gainera, urte guztian zehar hainbat ekitaldi antolatzen dituzte «herriari bizia emateko asmoz, eta gazteen arteko harremanak sendotzeko». Horren adibide dira, Gazte Festak, antzezlanak, ikus-entzunezkoak, pilota txapelketa, gaztaina bazkaria, edota gaur bertan egingo den San Silbestreko krosa.

Gaur amaituko da epea nitxoak eta kolunbarioak eskatzeko

Datorren urtean hilerria handitzeko asmoa du udalak; interesa dutenek udaletxean egin dezakete eskaera

Erredakzioa Leitza

Datorren urtera begira, hilerria handitzea aurreikusten du udalak. Proiektu honen aurrekontua 290.000 eurotakoa da. Hala, egungo azalerari 2.000 metro karratu gehituko zaizkio.

Egitasmo honen baitan, nitxo eta kolunbario berriak egingo

dira. Ondoren hauek interesa dutenen artean zozketatuko dituzte. Hori dela eta, eskaera egin nahi dutenek gaur dute horretarako azken aukera. Interesatuek udaletxera jo behar dute horretarako. Izan ere, eskaera kopuruaren arabera gehituko dira hilobiak. Eskariak banaka eta familia bezala egin daitezke.

Urtarrilean hasiko dituzte lanak eta aurreikuspenen arabera, hiru edo lau hilabeterako prest egongo da. Nitxo bakoitzaren prezioa, 50 urterako, 1.400 eurotakoa izango da, eta kolunbarioena, epealdi berdinerako, 140 eurotakoa.

Euskal selekzioko partida ikustera eta beste

Ekitaldi ugari daude egun hauetan; Tolosan atzo, Bilbora joan ziren Venezuelaren kontrako partida ikusteko

Eredakzioa

Eguberrietako ekitaldiek aurrera jarraitzen dute. Atzokoan txiki-nentzako antzezlanak izan ziren nagusi. Iruran Ane Monna, Osko-

la eta Karramarroi taldearen eskutik *Harritxu Maritxu* ikusi ahal izan zuten batetik, eta beste-tik, talogintza ikastaroa ere izan zuten arratsalde osoan zehar.

Ibarran berriz, goizean Ixabel Milleten eskutik *Gabonetako euskal ipuinak* saioa izan zuten. Larraulen ere Ra Bueno ipuin kontalariaren emanaldia izan zuten.

Atzoko ekitaldirik nagusia, hala ere, kirolarekin izan zuen zerikusia, eta zehatzago esanda futbolarekin. Izan ere, atzokoan Eus-

kal selekzioaren eta Venezuelakoaren arteko norgehiagoka izan zen Bilboko San Mamesen. Herri askotan goizean atera ziren, baina Tolosan gaztetxoek arratsaldean joan ziren Topaguneak antolatutako autobusean. Gazte astearen baitan antolatutako txangoa izan zen, hain justu. 18:30ean bildu ziren Trianguloan Euskal selekzioaren elastikoak soinean zituztela, nahiz eta hotza egiten zenez gehienak ez ziren berokia kentzera ausartu.



40 bat gazte atera ziren atzo Trianguloa plazatik Bilburruntz. R.C.



Ibarran Ixabel Milleten Gabonetako euskal ipuinak entzun ahal izan zituzten. E.EZEIZA



Iruran talogintza ikastaroa izen zen atzo arratsaldean. E.MAIZ

↓ Gaurko ekitaldiak eta bestelako oharrak

IBARRA

- **Gaur, abenduak 30.** *Ali, haren amona eta alfonbra hegalaria* izeneko antzezlanak Txalo taldearen eskutik. 11:30ean kultur etxean izango da. Kutxa Gizarte Ekintzak sustatutako emanaldia da.
- **Oharra.** Gaur eta urtarilaren

3tik 5era, goizez bakarrik egongo da zabalik Benito Izagirre kultur etxea eta baita liburutegia ere. 09:30etik 14:00etara izango da ordutegia.

IRURA

- **Gaur, abenduak 30.** Gaztelekutik txangoa egingo dute Bil-

boko Eguberrietako Haur Parkea bisitatzeko.

Era berean, 17:30etik aurrera xake partidak izango dira plazan (parte-hartze irekia izango da).

- **Oharra.** Gaur eta urtarilaren 3 eta 4an Ludoteka eta Liburutegia 11:00etatik 13:00etara egongo da zabalik.

TOLOSA

- **Gaur, abenduak 30.** Gazte astearen baitan txokolatada eta merendola izango dituzte Topagunean (Trianguloa plazako kultur etxean dago Topagunea).

- **Gaur, abenduak 30.** Gaurkoa da Gabonetako haur parkera jo-

ateko azken eguna. Zerkausan dago eta 11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara bisitatu daiteke. Haur parkean txu-txu trenak, aereogiroa, txapa eta marrazki tailerrak, bideojokoak, puzgarriak eta abar luze bat bildu dituzte gazteen gozamenerako. Sarrera doakoa da.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN
BALIOA**
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider gareniz, aukera ekonomiko guztietara egokitzun diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizalde: 687 410 118. leizalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Ibarra



EGURREZKO HESIA JARRI DUTE

Pasa den irailean jarri zuten Arane iturritik San Inazio auzoko Emeterio Arrese parkera doan bide gorrian egurrezko hesia, barandaila moduan, eta orain Arane etxetik San Bartolome plazarako bi-dearen txanda izan da. Lanak oraintxe bukatu di-

tuzte. Lanen sustatzailea Ibarra Udalaren Udala izan da Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Zelai ibaiaren antolamendua eta berreskuratzea biltzen dituen proiektuaren aurrekontua 190.266,57 eurokoa izan da. HITZA

Agurak

agurak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

www.TOLOSALDEA.hitza.info

www.IBARRALDEA.hitza.info

www.ALEGIALDEA.hitza.info

www.LEITZALDEA.hitza.info

www.TOLOSA.hitza.info

www.ANOETALDEA.hitza.info

www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.info

EZAGUTU
WEBGUNE BERRIAK

Agenda

ANTZERKIA

■ **Tolosa.** *Ozeko magoa* flamenkoa, zuzeneko musika eta eta txotxongiloak uztartzen dituen lana, 18:00etan, Topic-en.

AZOKA

■ **Tolosa.** Laskorain ikastolak antolatuta, Ekuador eta Sahararen aldeko Merkatu Txikia, kultur etxean.

BILERAK

■ **Tolosa.** Asis sarearen hileroko otoitzaldi bilkura, 19:30ean, Klarisen komentuan.

GABONETAKO EGITARAU

■ **Ibarra.** *Ali, haren amona eta alfonbra hegalaria* antzezana, Txalo taldearen eskutik, 11:30ean kultur etxean.
■ **Irura.** Gaztelekutik txangoa Bilboko Eguberrietako haur par-

kera. 17:30ean xake partidak jokatu dituzte plazan.

■ **Tolosa.** Gazte Topalekuan txokolatea eta askaria. Zerkau-sian, Gabonetako haur parkea, 11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.

ZINEMA


■ **Tolosa.** Leidor aretoan, zine forumaren barruan, 19:15ean eta 21:45ean, *Exit through the gift shop* filma.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.



Helduentzat eta umeentzat

Abenduak 24arte egiten diren erosketengatik 3 zozketatan parte hartuko duzu:

- Spa zirkuito bat
- Posada batean aste bukaera
- Paradore batean aste bukaera



Errementari Kalea, z/g
TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

LENTZERIA